Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46.2 b) artikulua ezarritakoarekin bat, erregelamenduz ezarritako izapideak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak bete ondoren, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren urriaren 15eko 3077/96 Foru Aginduz eskuordetu dizkidaten ahalmenak erabiliz, Zuzendaritza Nagusi honek

EBATZI DUT:

**Lehena.-** Indarrean dagoen Gastuen Aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

KARGUAK

5.000.000 62120/4600/5133  
lerroa, 25560-6; izena “Iruñerriko garraio publikorako diru-ekarpena”

## ABONAMENDUAK

621110/4810/5133

lerroa, 25510-0; izena "Garraioaren sektoreko prestakuntza jarduketak laguntzea"

5.000.000

**Bigarrena.-** Ebazpen hau igortzea Idazkaritza Teknikora (Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoa) Ogasunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan duen Kontuhartzailtza Delegatura, Nafarroako Foru Parlamentura, eta Garraio Zerbitzura.

Iruñean, 1998ko urriaren 19an

Garraio eta Komunikazio Zuzendari Nagusia: Angel Sanz Barea"

**"65/1998 FORU AGINDUA**, urriaren 30ekoa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak emana, "Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza" 10. Programako kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalak egin duen txostena; haren bidez, transferentzia eskatzen da 1998rako Gastuen Aurrekontuko programa bereko kontusailen artean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1998 Foru Legeko 46. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak

AGINDU DUT:

**1go.** 1998rako Gastuen Aurrekontuan ondoko transferentzia egitea "Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza" 10. programako kontusailen artean:

Kentzeko kontusaila	Zenbatekoa
91120-6020-3135 "Inbertsioak minusbaliatuen zentro berekietan", lerroa, 99002-0	1.142.000

Gehitzeko kontusaila	Zenbatekoa
91120-7810-3137 "Baztertuei laguntza ematen dituen elkartentzako dirulaguntzak", lerroa, 32040-8	1.142.000

**2gn.** Foru Agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura eta Afera Ekonomikoen eta Araubi-

de Administratiboaren Atalera, behar diren ondo-riotarako.

Iruñean, 1998ko urriaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

"Nafarroako Gobernuak, 1998ko urriaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak egin duen eskaria; haren bidez, aurrekontu-aldaketa eskatzen da, Aralar mendiko bazkalekuak hobetzeko proiektu bat burutzeko (NOP); proiektu hori Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak prestatu zuen, joan den urtean.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DUT

**Lehena.** 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, ondoko kontusailetik: kontusaila, 72240-7600-5334; proiektua, 40003; lerroa, 97047-0; izena, "Herrilurretan larretokiak sortzeko dirulaguntzak. 5b helburuko P.O.". Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: kontusaila, 31200-7600-5335; proiektua, 30000; lerroa, 11731-9; izena, "Dirulaguntzak eta jarduketak. Proiektua, Oihangintza Plana"; zenbatekoa, 8.668.912 pezeta.

**Bigarrena.** Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza, eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura departamentuetara, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta aipatu departamentuetako kontuhartzailtza delegatura."

"Nafarroako Gobernuak, 1998ko urriaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Idazkaritza Teknikoak aurrekontu aldaketa bat egiteko egin duen proposamena; hain

zuzen ere, informatikako materiala erosteko Nafarroako Justizia Administrazioarentzat.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

#### ERABAKI DUT

**Lehena.** 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, ondoko kontusailetik: kontusaila, 11610-7810-2-1341; proiektua, 16003; lerroa, 07830-5; izena, "Interreg II Ekimena". Ondoko kontusailera egingen da transferentzia: kontusaila, 00001-7000-1121; proiektua, 10001; lerroa, 00370-4; izena, "Justizia Administrazioa informatizatzeko laguntza"; zenbatekoa, 7.000.000 pezeta.

**Bigarrena.** Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakari eta Barne eta Ekonomia eta Ogasun departamentuetara, Kontabilitate eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontu ataletara, eta aipatu departamentueta-ko kontuhartzailletza delegatura. "

#### KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko abenduaren 15ean harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuaren erabakiak, bere Kontseilarien foru aginduk eta zenbait departamentutako zuzendari nagusien ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo azaroan igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-gehikuntza, kreditu-transferentzia, kreditu-sorkuntza, kreditu-gainerapen, kreditu-birjarpen edo kreditu-gainerapen dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin, bai eta 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. artikuluetan ere.

Iruñean, 1998ko abenduaren 24an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 1998ko urrian egindako bilerak

### MAHAIA

21ean.

#### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

6, 14, 20 eta 27an.

### OSOKO BILKURA

1ean:

– a) Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena. Haren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izanen ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Foru Lege proiektua, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bateginaren 4. artikuluko 2. atala aldatzen duena. Haren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izanen ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Foru Lege proiektua, Nekazaritzako Finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bateginaren 4. artikuluko 2. atala aldatzen duena. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Ubidea burutzeko lankidetzahitzarmena, Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

— Osasun arloko goi mailako teknikari lanpostu baterako deialdiari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak egina.

22an:

– “Haurrak gatazka armatuetan” Erakunde Adierazpena berrestea.

– Errazti Esnal andreak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko

Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko emendakina eztabaidatu eta bozkatzea.

– Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak aurkeztua, aintzakotzat hartzea, bidezko bada.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da larrialdi psikiatrikoak arautu ditzan.

– «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Epaitegi Togadun Militarra kentzea.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Interneteko erabiltzaileentzat “tarifa laua” lortzeko Nafarroako Parlamentuak duen borondatea agertzen du.

### EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

2an:

– Lan bilera. Bertan Industrias Cárnicas de Navarraren eta Estatuaren ordezkariak batek Osasun-tasei buruzko Lege proiektuaren berri emanen du.

8an:

– Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

28an:

– Nafarroako Gobernuak ordezkari baten agerrialdia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, ekain, uztail, abuztu eta iraileko hilabetei dagokien aurrekontu aldaketan berri emateko.



**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

2an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Oihan Planaren berri emanen dute hurrengo elkarteetako ordezkariak: Zaraitzu, Erronkari eta Aezkoako Batzarre Nagusietakoak, Ameskoabarrengo Udalekoak, Limitaciones Mendiko Batzarrekoak, Bidasoa eta Berroaran Mendietako Administrazio Batzarrekoak eta Kintoa Mendien Mankomunitatekoak.

6an:

– Lan bilera. Bertan erakunde hauetako ordezkariak banak Nafarroako Oihan Planaren berri emanen du: Orbela Mintegizaleen Elkarteak, "Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA" Ingurugiro Kudeaketarako Enpresa Publikoa, Baso Ingeniari Teknikoien Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordea (Nafarroako Ordezkariak), Foresna Zurgaiak Elkarteak, Cederna-Garalur Elkarteak eta Nafarroako Oihan Elkarteak.

7an:

– Lan bilera. Bertan erakunde hauetako ordezkariak banak Nafarroako Oihan Planaren berri emanen du: Nafarroako Zuraren Enpresarien Elkarteak (ADEMAN), Zurgin, Ebanista eta Zur-enpresetako Enpresarien Elkarteak (ACEN), UAGN, EHNE eta UPA sindikatu eta nekazari elkarteak, Auñamendi Oihan Lanetako Langileen Enpresetako Elkarteak eta UGT, CCOO eta ELA-STV sindikatuak.

8an:

– Lan bilera. Bertan ANAT-LANE, Greenpeace, Gurelur eta Landazuria elkarte kontserbaziozale eta talde ekologisteen ordezkariak banak Nafarroako Oihan Planaren berri emanen du.

9an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak batek Nafarroako Oihan Planaren berri emanen du.

13an:

– Lan bilera. Bertan, Bera, Baztan, Tafalla, Zirauki, Lizarra Tuterak eta Arguedaseko ehiztari elkarteetako ordezkariak agertuko dira Ehiza Plan Estrategikoari buruzko azalpenak emateko.

14an:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Ehiztari Elkarteak (ADECANA) ordezkariak agertuko da eta baita Nafarroako Ehiza Hegaztien Elkarteak eta Nafarroako Ehiza Federakundeko ordezkariak ere Ehiza Plan Estrategikoari buruzko azalpenak emateko.

15ean:

– Lan bilera. Bertan, Gurelur, Gorosti eta Anat-Laneko ordezkariak agertuko dira Ehiza Plan Estrategikoari buruzko azalpenak emateko.

20an:

– Lan bilera. Bertan, Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarteak (ACP) ordezkariak agertuko da Lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen eta hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren gainean bere iritzia emateko.

27an:

– Lan bilera. Bertan, Iruñerriko Ur Mankomunitateko ordezkari batek Eugiko urtegiak biltutako uraren egoeraren berri emanen du.

29an:

– Lan bilera. Bertan, Magnesitas de Navarra-ren Zuzendaritzako ordezkari batek eta enpresa horretako UGT sindikatuko ordezkariak Eugiko instalazioen ondoan osagarri kimiko bat isurtzearen berri emanen dute.

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA**

6an:

– Lehendakariak eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, trafiko eta bide-segurtasunari buruzko esku-menak berreskuratzearen berri eman dezan.

– Lehendakariak eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, "2000 efektua"k Foru Administrazioak sistema informatikoetan izanen duen eraginaren berri eman dezan.

6 eta 8an:

– Lehendakariak, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeko Ponentzia, Nafarroako Kontseilu Aholku-emalari buruzko Foru Lege proposamena eta Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua aztertzeak erabakitzea.

27an:

– Lan bilera. Bertan, "Asociación Navarra en Defensa de los Animales" (ADENA) elkartearen ordezkari batek zakurren borrokei buruzko bere proposamena berri emanen du.

29an:

– Lehendakariak eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, zakurren-borrokak ote dauden azal dezan.

**HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

7an:

– Lan bilera. Bertan “Síndrome de Down” eta “Bidean” elkarteetako ordezkariak banak hezkuntza premia bereziko ikasleak eskolaratzeko baldintzen berri emanen du.

9an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, 1998/1999 ikasturteko eskolaratze prozesuaren, antolamenduaren eta helburuen berri eman dezan.

– Bisiten plana.

16an:

– Lan bilera. Bertan, Donibane, Mendebaldea eta Ermitagaña auzoetan matrikula D erudian egitea eskatzen duten gurasoen ordezkariak agertuko da beren eskaerei buruzko azalpenak emateko.

20an:

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, “Pablo Sarasate” orkestraren egiazko egoeraren berri eman dezan.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolaratzeko baldintzen berri eman dezan.

27an:

– Lan bilera. Bertan, Herrikoa eta landa eta Iruñerriko gurasoen ordezkariak banak eskola garraioaren zerbitzuaren berri emanen du.

– Romeo Lizarraga jaunak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan.

**GIZARTE GAIK BATZORDEA**

7an:

– Nafarroan gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko Plana (1998-2005) eztabaidatu eta bozkatzea.

15ean:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurka borroka egiteko Sareko ordezkariak agertuko da Pobrezia eta

Gizarte Bazterkeriaren aurka borroka egiteko Planari buruzko azalpenak emateko.

**INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA  
ETA TURISMO BATZORDEA**

13 eta 14an:

– Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

21ean:

– 1999-2001 hiru terako Nafarroako Enplegu Plana eztabaidatu eta bozkatzea.

**HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA**

14an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, N-1 errepidea Olaztitik pasatzearen berri eman dezan.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Medinaceli-Tutera errepide-zatia autobia bihurtzeko izenpetutako Erakunde Adierazpenaren berri eman dezan.

**NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA  
ETA MENDI BATZORDEA**

21ean:

– Sánchez Turrillas jaunak (SPN) aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kazkabarerauntsiak sorturiko kalteak arintzeko zenbait neurri har ditzan.

23an:

– Lan bilera. Bertan “Unión de Pequeños Agricultores” (UPA), Euskal Herriko Nekazarien Elkartea (EHNE) eta “Unión de Agricultores y Ganaderos (UAGN) sindikatu etako ordezkariak banak nekazari eta abeltzaintzako eskualdeko ardura Planari eta ureztalurren Planari buruzko bere iritzia emanen dute.

**TOKI ADMINISTRAZIOA BATZORDEA**

23an:

– Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

## 1998ko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

### 1ean:

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakinak. Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

– Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da kazkabar-ekaitzak eragindako kalteei aurre egiteko zenbait neurri har dezan. José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko koordinazio-jarduketari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentario andreak egina.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakina. Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakina. Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzearen gainean harturiko erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Negutegi efektuko gasak gutxitzeko jarduketari buruzko proiektua onesten duen erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, zakurren borrorak erauzteko hartutako neurriei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Herrilan Kontseilaria buru duen "Batzorde politikoa"ri buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Itoizko saihebidetako obrei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena bernegoziatzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, 98-6-30a bitartean, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak xedatu baimenen babesean, emandako abalei eta abalaturiko kopuruei buruzko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioari eta kudeaketa-irizpideei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Irati eta Aragon ibaietako landaretzaren azterketari buruzkoa.

## **2an:**

– Iruñeko espetxeko euskarako irakaslearen izendapenari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Naturguneei buruzko Legearen konstituzioaurkakotasun errekurtsioa dela-eta Konstituzio Auzitegian agertzea erabaki duen Nafarroako Gobernuaren erabakiaren kopiari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, 1998an, kalitatea, diseinua eta kompetitibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruzko galderari.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko emendakina. Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko emendakina. Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapituluak aldatzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko emendakina. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko koordinazioari buruzko Plan bat bidaltzei buruzko galdera. M<sup>a</sup> Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentario andreak egina.

– Arga ibaian, Antsoingo udal dermio aldean, hilik aurkituriko arrainei buruzko galdera. José

Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Antsoain zeharkatzen duen Arga ibaiaren zatian hildako arrainei buruzko galdera erretiratu egin du (2693 erregistro zenbakia zuen, irailaren 22koa).

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Prosilva elkarteari egindako deia bertan behera uztea, Nafarroako Oihan Planari buruz zuen iritzia agertu behar baitzuen.

– Uxuezaleak elkartearen idazki bat, zeinaren bitartez elkarrizketa batean parte hartzeko gomita egiten zaien Hezkuntza Batzordeko kideei, aipatu Batzordearen lanarekin zerikusia duten hainbat gai direla-eta.

– Senideak-en idazkia. Harekin batera, euskal preso batzuei buruzko informazioa eta uztail-abuztuei buruzko informazioa.

## **5ean:**

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakina. Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilearen IX. tituluko II. kapituluak aldatzen duena.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakinak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Nafarroako Gobernuko ordezkari bat ager dadila, ekain, uztail, abuztu eta irailean Nafarroako Parlamentuan sartu diren aurrekontu aldaketei buruzko azalpenak eman ditzan.

– Herriaren Defendatzailearen idazkia. Harekin batera, "Emakumeen aurkako etxeko indarkeria" txostena.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak aurkezturiko osoko emendakina. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua.

– Jordi Purti Planell jaunaren idazkia, polizi atzetan hartutako tratua salatzen.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuak Belfastko Udaleko zinegotzi Pat Rice jauna har dezala.

– Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D eredu-ko irakasleei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak egina.

**6an:**

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldearen idazkia. Harekin batera, “Haurrak eta gatazka armatuak” erakunde-adierazpena.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretanaurreikusitako inbertsioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

– 1999 urterako lan arlorako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

– “Sociedad Aguas de la Cuenca del Ebro, SA” sozietatearen bitartez obra hidraulikoak egiteko inbertsioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

– Kontuen Ganbarako Lehendakariaren idazkia. Harekin batera, Cascante eta Fustiñana udalei buruzko fiskalizazio txostenak, 1997ko ekitaldiari dagozkionak.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54. artikulua aldatzeko proposamena aurkeztu du.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Industri kontseilaria ager dadila, energia aurrezteko plana bete eta garatzeari buruzko informazioa eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: “Unión de Pequeños Agricultores” erakundea ager dadila, beraien iritzia azal dezaten, Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskualdeka arreta egiteko eta ureztaketetarako planak direla-eta.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: EHNE sindikatua ager dadila, beraien iritzia azal dezaten, Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskualdeka arreta egiteko eta ureztaketetarako planak direla-eta.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: UAGN ager dadila, beraien iritzia azal dezaten, Nafarroako nekazari eta abeltzainei eskualdeka arreta egiteko eta ureztaketetarako planak direla-eta.

– “El Mirador” geriatrikoaren egoerari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egina.

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Barne kontseilaria ager dadila, informazioa eman dezan Nafarroan zakur-borrokarik ba ote den, eta horri buruz neurriak hartu diren.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/1998 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Foru Komunitateko ordenadoreetan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, sobre las ayudas para la adopción de medidas que mejoren la calidad de los vertidos en 1997.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Zolinako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, naturaren interpretazio zentroen ezartze- eta garatze-mailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Miguel Angel Larráyz Lezáun Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Belateko etorkizuneko parkearen lurralde-eremurako natur baliabideak antolatzeke planaren zirriborroari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Aralarko etorkizuneko parkearen lurralde-eremurako natur baliabideak antolatzeke planaren zirriborroari buruzko galderari.

– Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bere borondatea azaltzen du zenbait erabiltzailek Internet-en sarbidea edukitzeko "tarifa laua" ezar dadin, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Erregelamendua aplikatu diezaiotela uztailaren 3an –2323 erregistro zenbakiarekin– erregistratu zuten galderari.

#### **7an:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Gizarte Ongizate kontseilariaren Foru Agindu bat, zeinaren bitartez "Inbertsioen azterketak eta plangintza" 10. Programako kontusailen arteko transferentzia baimentzen den.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, lurzati berrantolamendua-ren prozesuari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ustategien oinarrizko azalerei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ustategien oinarrizko azalera eratzeko laguntzei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, lurzati berrantolamendua-ko laguntzei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Errioxan Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Eugini buruzko galderari.

– Eugi ondoko putzu batean gai kimiko pozoiatsu bat isurtzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eginga.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parla-

mentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, abeltzaintza ustiatzearen ingurugiro eragina kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Irati eta Aragón ibaietako landarediaren azterlanari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Bertizko Jaurerriko ugaztuen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Urantziako Udaleko dermioan Odrón ibaiaren ibilgua handitzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, "José M<sup>a</sup> Iribarren" ikastetxe publikoa bere baitan hartuko lukeen eraikina egiteari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentarioak eskaturiko informazioa, 1998ko apirilean Arga ibaian eta Egues errekan gertatu kutsaduraren gaineko azterketa, txosten, gomendio, zabaltagiri eta abarri buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentarioak eskaturiko informazioa, 1998ko ekainean Arga ibaian eta Egues errekan gertatu kutsaduraren gaineko azterketa, txosten, gomendio, zabaltagiri eta abarri buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako basoilo handien bideragarritasun-azterketari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako ibaietan aurten gertatu diren isurketa toxikoez Nafarroako Gobernuak landu txosten teknikoei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Europako Bata-sunak Ponsal, SA enpresaz eman dituen txosten-  
nei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, FITEX enpresaren espedienteari eta salmenta kontratuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-egoera, 1998ko ekitaldiko hirugarren hiru hilekoan.

– "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu du: Animaliak Babesteko Nafarroako Elkartearen agerraldia, zakur-borroken Nafarroako egoeraren inguruan dituzten proposamenak azal ditzaten.

– Nafarroako Hizkuntz Eskolako leku ezari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak egina.

– Zenbait obra burutzeko Estatuak 1999rako hitzartutako aurrekontuari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak egina.

– M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Gizarte Ongizate Departamentuaren eta San Adrián eta

El Mirador zaharretxeen arteko itunei buruzko informazioa.

– M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Museoaren administrazio-kontratazio baten espedienteari buruzko informazioa; hain zuzen ere, aurtan Arellanon egin diren arkeologi indusketei buruzkoa.

#### **8an:**

– Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Aferen Salaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren ale bat bidal diezaiotela –hain zuzen ere, 1989ko martxoaren 1ekoa (17. zk.)–, 535/1997 errekurtsioan froga gisa erabili ahal izateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusiaren ebazpen bat, zeinaren bitartez kreditu-transferentzia bat baimentzen baita.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Magnesitas de Navarra, SA enpresako zuzendaritza ager dadila, aipatu enpresako instalazioen inguruetan izan den isurketaren berri eman dezan.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: UGT sindikatuak Magnesitas de Navarra, SA enpresan dituen ordezkariak ager daitezela, aipatu enpresako instalazioen inguruetan izan den isurketaren berri eman dezaten.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro kontseilaria ager dadila, Magnesitas de Navarra, SA enpresako instalazioen inguruetan izan den isurketaren berri eman dezan.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Iruñerriko egoitza-lurzoruaren egoera dela-eta egin duen azterlanari buruzko informazioa.

– 1999 urterako liburu-fondoak eguneratzeko aurreikuspenari buruzko galdera, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak egina.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro kontseilaria ager dadila informazioa emateko, Magnesitas de Navarra, SAren harrobiko leherkari-hondakinak isurtzearen ondorioz Eugiko urtegiaren dagoen kutsadura mailari buruz.

– M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: irailaren 22an Vianako Printzea Erakundearen batzorde teknikoaren aktei buruz bidali zioten informazioa gehitzea.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Lehendakaritza kontseilaria ager dadila, zertarako-eta Foru Administrazioako aldibaterakotasuna eta aparteko orduak gutxitzeko planei buruzko informazioa eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe jakin nahi du: urriaren 1era arte zenbat diru bildu den hainbat zergekin (zuzenekoak, zeharkakoak eta beste).

– Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejóndik Corteseraino doan N-232 errepidearen zatia destoles dezan, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkeztua.

– Sotos de Traslapiente-n zentral hidroelektriko bat jartzeko proiektuari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina.

– Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektua. Nafarroako Gobernuak bidalia.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro kontseilaria ager dadila, zertarako-eta Magnesitas de Navarra, SA. enpresak jaurti omen dituen 500 kilo leherkari-hondakin isurketaren gaineko informazioa eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Gobernua ager dadila, zertarako-eta Gobernuak maiatzaren 31ko 7/1994 Legearen 4. artikulua betetzeko burutu dituen jarduketaren berri eman dezaten.

#### **9an:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusiaren ebazpen bat, zeinaren bidez 1998ko gastu-aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentziak baimentzen baitira.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, erabaki bat, zeinaren bitartez urte anitzeko gastu bat egiteko baimena ematen baita, zertarako-eta Nabazkoze inguruko bide eta hustubide proiektuaren obrak egiteko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamen-



tario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, San Adriándik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Ega ibaian, San Adrián herrian, hain zuzen ere, arrain hiltzea eragin zuen galtsaguneari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Industri jardueraren ingurugiro eragina kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Industri jardueraren ingurugiro eragina kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko dirulaguntzetarako 1997an aurkeztu diren eskaerei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, hondatutako eremuak lehenerratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetzak akordioari buruzkoa; izan ere, Nafarroako Oihan Planaren helburu batzuk garatu nahi dituzte.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusitako diren alternatibei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruzko galderari.

